

Aretxagazeta

ETA GAINERA...

Ze barri?

GAIA

Kirola egiteko gertu herritar ugari /8

POLITIKA

Guardia Zibilak herriko etxe bat miatu du /9

LEINTZ GATZAGA

GUREL ikasturtea prestatzen hasi da /10

A photograph of a modern residential building. The building has a balcony with a metal railing and a window box with flowers. The building is white with a blue base and a yellow-orange section. There are plants in the foreground.

**Etxabeak
etxebizitza
bihurtzeko
proiektua**

GUARDIAKOFARMAZIA

ZAPATUA, 5
ITURRALDE. Mitarte 18..... 943 79 27 22

DOMEKA, 6
ITURRALDE. Mitarte 18..... 943 79 27 22

TELEFONOJAKINGARRIAK

OROKORRAK

Almen	943 71 49 07
ARETXAGAZETA	943 79 86 21
Faxa	943 77 18 54
Basotxo	943 77 09 81
Euskalgia	943 79 21 68
Gizarte laguntzailea	943 71 18 62
Hezibide elkarte	934 79 31 32
Industrialdea	943 79 62 80
Instituta	943 79 79 00
Kirol etxea	943 71 26 28
Kultura etxea	943 71 10 27
Kurtzebarri Eskola	943 79 00 49
Kurtzebarri BHI	943 79 57 40
Liburutegia	943 71 18 62
Loramendi EE	943 77 09 70
Ludoteka	943 79 05 81
Mankomunitatea	943 79 30 90
Murruko ME	943 79 93 74
Musika Eskola	943 79 36 50
Osasun etxea	943 79 74 58
Otalora	943 71 24 06
Parrokia (bulegoa)	943 79 18 42
Pausoka Haur Eskola	943 77 03 77
Postetxea	943 79 28 31
Santa Rita Ikastetxea	943 79 17 00
Saretxo	943 71 26 56
Taxi geltokia	943 79 22 33
Udal Bulegoak	943 71 18 62
Udaltzaingoa	943 71 18 63
Urats Gain	943 79 99 11

UDALZAINGOA

Arrasate	943 79 14 39
----------------	--------------

LARRIALDIK

SOS Deiak	112
Eskualde Ospitalea	943 03 53 00
Ertzaintza	943 79 71 99
Gurutze Gorria	943 76 55 76
Larrialdiak	943 46 11 11
Suhiltzaileak (Oñati)	943 78 28 00

MEZAK

ANDRA MARIAREN ZERURATZE PARROKIA
Domeketan: 12:00
Zapatuetan: 19:30

SANTA RITA
Domeketan: 09:00
Zapatuetan: 8:00
Lanegunetan: 19:00

BASERRI AUZOETAN:

GORONAETAN
Domeketan: 11:30

MENDIOLA
Domeketan: 12:00 (Otoitzaldia bakarrik)

GALARTZA
Domeketan: 12:30

OHARRAK

ERRETIRATUEN EGUNEKO EGITARAUA

Bihar, zapatua, erretiratuek euren omenezko eguna ospatuko dute. 11:00etan, Basotxoko tabernan salda beroa hartuko dute guztiek, eta gero, 12:30ean, meza izango dute herriko parroikia nagusian. 13:30ean, berriz, kirol etxean bazkaria izango dute. Bazkalostean, Ludi Berri taldearekin dantzaldia izango dute, eta, azkenik, hainbat opariren zozketan parte hartzeko aukera izango dute.

ESKULAN IKASTAROA

Urriaren 8an, Eskulan ikastaroa hasiko da. Bederatzi eskola emango dituzte (astean behin) ikastaro horretan. Izena emateko kultura etxera joan behar da, 11:00etatik 13:00etara bitartean. Eskulan ikastaroa egiteko 20 euro ordaindu beharko dira. Informazio gehiago gura baduzue deitu 943 71 10 27 telefono zenbakira.

ERRETIRATUENDAKO ESKULAN IKASTAROA

Urtero moduan, Basotxo erretiratuen elkarteak Eskulan ikastaroa antolatuko du. Gura duenak Basotxon eman dezake izena ikastarotik parte hartzeko. Informazio gehiago gura baduzue, deitu 943 77 09 81 telefono zenbakira.

LORAMENDIREN AGENDA

LUDOTEKAKO BAZKIDE EGITEKO AUKERA DUZU!

Adi, lagunok! Dagoeneko zabalik dago Algara ludoteka. Gipuzkoa plazan jarri dugu gaztetxoendako jolastoki berria. Zuk ere arratsaldeak ludoteka berrian pasatu gura badituzu, egin zaitez ludotekako bazkide lehenbailehen.

Informazio gehiago gura baduzue, joan ludotekara edo deitu 943 79 05 81 telefono zenbakira.

ORAINDELA 10URTE ARETXABALETAN

Jausoro Euskadiko txapeldun maratoian

Ramon Jausorok sekulako marka egin zuen orain dela hamar urte Donostiako Maratoian. 1992ko urriaren 11n, Ramonek lasterketa bikaina egin ostean, Euskadiko txapeldun izatea lortu zuen. Hainbat atzeritarren atzetik, hura izan zen helmugara sartu zen lehengo euskalduna.



BERTAKO BERBAK/ Juan Martin Elexpuru

"Ittuña"

1. Itogina.
- *Ittuñak dare ganbaran da konpontzia komeni da.*
2. Teilatuko ura, hodian batu ondoren, jausten den txorroa eta lekua.
- *Ittuñera joan da da ekarri ura, txorrokoa zikiña dator da.*



ZORIONAGURRAK



ESKORLATZA
June Lartzabal
14an, 3 urte. Berandu bada ere, zorionak, etxeko guztien partetik.



ESKORLATZA
Ainhoa Lete
22an, 7 urte. Berandu bada ere, zorionak, etxeko guztien partetik.



ESKORLATZA
Sonia Perez
26an. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ARETXABALETA
Jon Navarro
28an, 4 urte. Zorionak eta muxu handi bat, anaiaren eta etxeko guztien partetik.



ESKORLATZA
Ana Nevado
30ean, 22 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ARETXABALETA
Jone Perales
30ean, 8 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ARETXABALETA
Julen Perales
30ean, 8 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.




ESKORLATZA
Lander Mediavilla
4an. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ARETXABALETA
Joan Ander Mendieta/Unai Mendieta
Zorionak eta muxu handi bat, amaren partetik.



ARETXABALETA
Unai Mendieta
8an, 2 urte. Zorionak eta muxu handi bat, lagunen partetik.



EGUZKIGRAF
inprimategia

Aretxabaletako Industrialdea F-0-4
Araba Ibilbidea
20550 ARETXABALETA
Tfnoa.: 943 791844 / Faxa: 943 792941
info@eguzkigraf.com

JOSU HARATEGIA

Urdaitegia-Gozotegia
kroasantegia
Janari prestatuak

Mitarte kalea
ARETXABALETA
943 77 03 08



Miren & Zuriñe

Bitxitegia • Erlojudenda
Bitxien diseinua
Bitxien konponketa

Otalora, 4 (eliza aurrekaldean)
Tel.: 943 77 13 57
ARETXABALETA

ATREBENTZIA EZPADA/ Maritxuri guri harrapautako lorak eskeiñi gure dutzie; ze pentsetan jatzu?




ARACELI HERRÁN
langillie



IÑIGO ZUBIA
ikasle



CONCHI GONZÁLEZ
langillie



ALBERTO ZIARDEGI
langillie



ROSA NAVAJO
langillie



IMANOL LUENGO
langillie

Ez jat ondo pentsetan, euren herrixen harrapau daixie-la Maritxuri emuteko lorak! Badakit herri bixen arteko piketxue daguela. Gasteizekue naz eta dagueneko sartute nau pike horretan.

Ertortekotan 20 lagun baiño gutxiago etorri daittezela, bestela, ertzainei deittuko dutziet, eta hareik, mani-festaziñue dalakuen, ez dutzie itxiko Mondraguetik pasetan.


Harrapau egingo dittuela, gainera? Ezta pentsau be! Maritxuri lorak eskeiñi biher bajako, erosittako lorekin egin biherko jako, eta ez harrapautakuekin. Ez jat ondo pentsetan.

Mondraguetarra naz, bai-ñe, hala eta be, lorak harrapetie *fantasmada* itzela dala pentsetan jat. Herri bixen arteko pikie desagertute euelakuen ninguen, baiñe ez da hola.

Oso txarto pentsetan jat. Barrikadak egingo dittugu lorak lapurtu ez daixien. Jaixe han egitten bada, hartu daixiela handik lorak. Han be hamen besteko lora ederrak eukiko dittue.

Mondraguetarra naz, eta ondo pentsetan jat lorak harrapetan Aretxabaletara etortie. Hau Mondragueko kanpiñe da, hortan, ondo ikusten dot. Iguel oin hamen egurre jasoko dot!

TXALOAK ETATXISTUAK



TXISTUAK TORRALDEKO INBASIOA Dagoeneko ez da ezer errespetatzen Urkulun. Zikinkeria nonahi, autoak gaizki aparkatuta... Baina oraindik ez neukan dena ikusita! Irailaren 21ean, ertzainak Urkulura etorri ziren, helikopteroz, eta orain arte urtegiko lekuri sakratuena izan dena zapaldu zuten, Torraldeko uhartea. Helikopteroak gune horretan lasai bizi diren hegaztiak izutu zituen./A.L.

ETABARRUAN...

ASTEAN BEHIN / 4

KIROLAK / 6

HERRITARRAK / 7

Etxabeen txostena

Udalak herriko etxabeetan etxebizitzak egiteko ikerlana jarri du ikusgai udaletxean.

Bittor Muxikari elkarrizketa

UDAKo futbol entrenatzaile eibartarrak, liga hasierako partiduen balorazioa egin du.

Mundutarrak Aretxabaletan

Pili Muñagorri Hernaniarra orain dela zazpi urte etorri zen Aretxabaletara bizitzera.

ASTEKODATUA

730

EURO BATU ZITUZTEN ARIZMENDIKOEK AZOKAN


Joan den zapatuan, San Migel jaietako Azoka Ekologikoan 730 euro batu zituzten Arizmendiko ikasleek. Diru hori Hiruatxi emango diote, Ekuadorren egiten ari den proiektuari laguntzeko.

BESTEKEKESANA

“Gerra zibilean fusilatutako bi pertsonen gorpuak azaldu dira Zaldibian. Momentuz, bi ando-aindar izan daitezkeela uste dute. Baina bitartean, Aranzadi zientzia elkarteak hildakoen gorpuak aztertzen ari dira. Hala ere, horiek inongo ondoriorik atera baino lehen, dagoeneko egin diete sinbologia nazionalista kutsuko omenaldia. Eta horrez gain, 36an hildako gudariak zirela ziurtatu dute. Horren harira, nik esan gura dut, aurkitutakoak, gudariak izan beharrean milizianoak izan daitezkeela. Izan ere, Iñaki Egaña historiagileak aipatu moduan, 36tik 42ra bitartean Gipuzkoan, errepublikari leialtasuna zin egin zioten 1.100 pertsona fusilatu zituzten. Eta horietatik 600 oraindik aurkitu barik daude.

IÑAKI PIERRUGES
‘DV’/02-09-15

HERRITARRENBERBAK/ Xabier Sarasua



Akabo San Migelak

Joan dira Merkataritza azoka, Beinke-Loramendi dantza, buruhandiak, omenaldiak, gaztelu puzgarriak, Kepa Junkeraren kontzertua, herri bazkariak eta parrandak. Akabo! Eta zein gaizki bizi garen, berriro ere. Astelehenetik egubakoitzera lan eta lan eta zapatuan ere auskalo! Orain elurraren zain geratu behar, asteburuetakoeski eskapadaxoei ekiteko.

Norbaitek esan zidan euskal burges berriak garela eta ez garela horretaz konturatu ere egiten. Ez dugula, gainera, batere konpromiso sozialik.

“Aste osoan lana besterik egin ez eta gure kapritxoetarako eskubidea izango dugu, ezta?” pentsatzen omen dugu. “Konpromisoa eta inplikatzearaspaldiko kontuak dira; gure egungo bizi erritmoak ez du horretarako astirik uzten. Nahikoa konpromiso da goizero argitu orduko lanera joan beharra eta nahikoa

inplikatu beharra izaten dugu etxeko kontuetan. Hortik aurrerako gure erantzukizun soziala botoa ematera mugatzen da.”

Jaietan ere ikusi ditut hiru adibide argi: “Castellanoz” berba egitea euskaraz jardutea baino errazagoa gertatu zaio

“Ikurrina balkoian jartzeak lotsa edo pereza eman die nonbait atxabaltar gehienei”

askori; ikurrina balkoian jartzeak, bestalde, lotsa edo pereza eman die nonbait atxabaltar gehienei; eta presoen oinarriko eskubide zapalduen aldeko ekintzan ere ez zen jende askorik bildu. Atxabaltarrok ere galdu egin ote

dugu geure dimentsio sozial guztia? Ala dimentsio sozial hori errearen partiduaz koadrilan komentarioak egitera eta poteo herrikoian hutsik ez egitera mugatzen da?

Herri jakinduriak badaki horretaz zerbait eta honela esaten du Gabon kanta ezaguan:

“Dringilin dron, gaur Gabon, sakela betea daukat eta besteak hor konpon”.

Aretxagazeta

Durana 11
20550 ARETXABALETAKO
Tel.: 943 79 86 21
Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxagazeta@goiena.com

ZUZENDARIA
Aintzane Gardoki

ERREDAKZIOA
Mirari Altube
Amagoia Lasagabaster

MAKETAZIOA
Goio Arana

PUBLIZITATEA
Ziortza Martín

ZUZENTZAILEA
Sergio Azkarate

LEGE-GORDAILUA
SS-378-94

ISSN
1134-2609

TIRADA
4.100 ale

ARETXAGAZETA / ZE BARRI? • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaureritzako
Kultura Saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Aretxabaletako
Udala



Eskoriatzako
Udala



Leintz Gatzagako
Udala



M. J. Aretxaga

Aurrera eta aurrera

S an Migelek zapore gazi-gozoa utzi digute. Jai giro bikaina izan genuen, eguraldi ona, baina triste egoteko arrazoirik ere izan zen. Heriotzek beti eragiten dute tristura, eta jende gaztearena denean are gehiago. Bizitzaren legeak, ordea, aurrera egitera behartzen gaitu, eta horixe egingo dugu.

Aurrera jarraituz, jaietako bolo txapelketa ezin aipatu barik utzi. Bolutan bikain aritu zena Aitor Arantzabal izan zen, eta berak izan zuen txapela jantzeko ohorea. Gustura ibili zen gero, txapela buruan eta ibili munduan. Pena da momentuan argazki kamerarik ez izatea. Oraingoan ez genion argazkirik atera, baina hala ere, zorionak, Aitor!

Kepa Junkeraren ekitaldia bikaina izan zen, eta gutxitan izaten bada ere, herriko plaza jendez gainezka egon zen. Eta horrelakoetan denok pozik, antolatzaile, ikusle, musikari...

Pasatutakoak alde batera utzi eta aurrera begiratu, jubilatuek zita garrantzitsua dute datorren astean. Eguakotxean Olitera joango dira, eta zapatuan jubilatuen eguna ospatuko dute. Salda, meza, bazkaria eta dantzarako aukera ederra izango da egun horretan. Ludi Berri taldearekin giro bikaina izango dutela, hori seguru.

IKERLANA/ LKSk egindako txostenean egunen baten etxebizitza bihurtzeko txostena egin du

Udalak herriko etxabeak etxebizitza bihurtzeko azterketa-txostena egin du


AMAGOIA LASAGABASTER

Udalak herriko etxabeetan etxebizitzak egiteko ikerlana jarri du ikusgai udaletxean. Txosten horretan, besteak beste, etxebizitza bihurtzeko aukera duten etxabeen zerrenda ageri da. Interesatuak hilabete osoa izango dute egindako ikerketa ikusteko.

Udalak horrela eskatuta, LKS aholkularitza zerbitzuak herriko etxabeen dagokien ikerlana egin du. Orain dela urte batzuk, enpresa horrek berak egin zuen herriarendako Plan Estrategikoa. Plan hartan herrian etxebizitza-gabezia zegoela zehaztu zuten. eta orain, arrazoi hori aintzat hartuta egin dute etxabeen ikerlana. Helburua da hutsik dauden etxabeak etxebizitza bihurtzeko aukera lantzea.

IKERLAN ZEHATZA

LKSk, lehenik eta behin, herrian dauden etxabe guztiak zenbatu eta aztertu ditu. Atal horretan, batez ere, etxabearen kokapena eta gaur egun duen erabilera zein den batzen duen informazioa jaso dute. Gero, faktore horiek guztiak kontuan hartuta, etxabe bakoitzak etorkizunean etxebizitza izateko dituen aukeren balorazioa egin dute. Azkenik, ikerlana amaitzeko, ordenantza erregulatuak bat idatzi dute. Kapitulu horretan etxabeak etorkizunean etxebizitza izateko bete beharko



Tankera horretako etxabe hutsek aukera izango dute egunen baten etxebizitza bihurtzeko.

dituen baldintza eta betebeharrak guztiak zehaztu dituzte. Idatzi hori, gainera, oso garrantzitsua da; izan ere, etorkizunean, Udalak bere ordenantza propioa egiteko erabiliko duen oinarria izango da.

LKSk aurreratu du etxebizitza bihurtu gura dituzten etxabeek honako baldintzak bete beharko dituztela, hala nola: 40 metro koadroko gutxienezko aza-

lerra, lau gela egiteko lekua, etxebizitzan sartzeko sarrera egokia, auzokideen arteko adostasuna, aurreko aldeko itxurak ingururakerekin bat egitea, eta abar. Dena dela, horiek guztiak, udal ordenantza egin artean, behintzat, iradokizunak besterik ez dira izango. Horregatik, udal aparejadoreak gertu daude etxabeak duten herritar guztien proposamenak entzuteko.

BISITA EGUNAK

Etxabeen gainean egindako txostena urriaren amaiera arte izango duzue ikusgai udaletxean. Interesatuok martitzenetan, 11:00etatik 13:00etara bitartean, eta eguenetan, 15:30etik 17:30era bitartean, izango dute aukera ikerlana ikusteko. Bi egun horietan udal aparejadorearen laguntzarekin aztertu ahal izango dute LKSk egindako lana.

LABUR

Rukullakta Ekuador proiektuaren azken berriak eman dizkie Hiruatxek herritarrei

Duela hilabete batzuk hasi zen Hiruatx elkarteak Ekuadorko Amazonian bizi diren 17 komunitateko Kitchawai indigenei laguntza ematen. Proiektua aurrera doa, eta Hiruatxek laguntza eman duten herritarrei orain arte zer egin duen azaldu gura

izan die, eskutitz baten bitartez. Besteak beste, jakinarazi die Kitchawai indigenak une honetan behin-behineko lokal txiki baten pentsua ekoizten ari direla eta horrekin merkaturian eta enpresa kudeaketan esperientzia profesionala hartzen ari direla.

Berriro ere zuhaitz bat apurtu dute

Santa Kurtz kalearen atzeko aldean dagoen parkeko zuhaitz bati eraso egin diote. Joan den astean azaldu zen Ailanto izeneko zuhaitza erdi-erditik puskatuta. Gainera, ez da lehenengo aldia ezezagun batzuek horrelako apurketak egiten dituztela.

Bihar, Erretiratuen Eguna ospatuko dute

Bihar, zapatua, erretiratuek festa egingo dute. Eguna salda berobatekin hasiko dute. Gero, meza entzungo dute, eta, azkenik, bazkaria egingo dute kirol etxean. 245 erretiratuek eman dute izena bazkarira joateko. Bazkalostean opariak banatuko dizkiete.

**OSKAR
GARAJEA**

Tel.: 943 79 98 74
Fax: 943 71 24 59
Basabe Poligonoa, A-2-4
ARETXABALETA

**J.J.
IRURE**
ITURBINTZA

URA
GASA
KALEFAKZIOA

MITARTE, 15
ARETXABALETA

943 793 187

Angelines
AUTOZERBITZUA

Frutan eta
txarkuterian
espezialitatea

Mitarte, 16 • 943 79 61 42
ARETXABALETA

BEGIBO

optika

Loramendi, 10
Aretxabaleta
Tel. 943 79 98 21

**Mobiliario
ARENAZA**

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia, 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

SAN MIGELAK / Zahar zein gazte, herritar zein kanpotar, denek-bizi izan dituzte giro onean San Migelak

Eguzkiak berotutako eta euskal jaiak girotutako San Migel festa biribila izan da

AMAGOIA LASAGABASTER

Kultura teknikariaren esanetan, aurtien iaz baino jende gutxiago ibili da San Migel jaietan. Dena dela, antolaketa aldetik ezerk ez du hutsik egin, eta, orokorrean, festa politak izan direla azpimarratu du. Eguzkiak ere, zer esanik ez, asko lagundu du. Zapatua izan ohi da egun handia, eta goizean goizetik, euskal giroa izan zen nagusi. Domekan, Kepa Junkerak eta bere eskusoinuak herritar ugari batu zituen herriko plazaren iluntasunean.

Iaz baino jende gutxiago ibili arren, oro har, lagun askok hartu dute parte San Migeletan

Ekitaldirik arrakastatsuenak Kepa Junkerak eta bere taldearen kontzertua izan zen



Antonio Zuazuak emozio handiarekin jaso zuen herrian egin zioten omenaldia.



Euskal Herritik kanpo dauden presoak gogoan izan zituzten EPEH plataformakoek.



Bertsolariak urtero moduan balkoi batetik aritu ziren bertsotan.



Hauek bai saltzaile onak! Musutxo horrekin porruak, tomateak, kipulak... Denetarik saldu zuten.



Bostehun lagunetik gora batu ziren Iturrigorri frontoian egindako herri bazkarian.



Beinke-Loramendi dantza ekitaldiak herriko plaza bete zuen.



Zapatuan herritarrek harro erakutsi zuten Ikurrina euren balkoietan.



Domeka goizean herri kirolek animatu zuten giroa.

ARGAZKAK: ANDREU GILLENIA, ANDONI GOTTI, ZORITZA MARTIN, AMAGOIA LASAGABASTER

BITTOR MUXIKA/PREFERENTE MAILAKO FUTBOL ENTRENATZAILEA

"Taldea antolatuko duen erdilari baten falta sumatzen dugu"

AMAGOIA LASAGABASTER

O rain dela zazpi hilabete hasi zen Bittor Muxika eibartarra UDAn preferente mailako futbol taldea entrenatzen. Ligan dagoeneko lau partidu zuzendu ditu, eta, orain arte, taldeak ez dio aurkariari gol bakar bat ere sartu.

Liga ez duzue batere ondo hasi; zer gertatzen zaio taldeari?

Ez dakit, baina egia da lehenengo partiduak oso eskasak izan direla. Konfiantza falta-edo, ez dakit zer daukaten mutilek.

Zerk huts egin du?


Nire iritziz, aurrendenboraldia egitea falta izan zaigu. Kostaldeko futbol talde gehienek abuztu osoa entrenatzen pasatzen dute, eta gu irail hasieran hasi gara entrenatzen aurten ere.

Lehenengo lau partiduak jokatu ostean, zein ondorio ateratu duzu?

Guk erdilari baten falta sumatzen dugu; taldea antolatuko duen jokalaria baten beharra daukagu, hain zuzen ere. Baina hori lortzea oso zaila da. Preferente mailan ezin dugu talde perfekturik edukiri. Jokalari on bat irteten bada, talde handi batek eraman egiten digu, hortaz, oraingoz daukagunarekin konformatu beharko gara.

Jokalari gaztetxoak ere badituzu aurten; horiek zer moduz ari dira?

Esaterako, Raul eta Juan daukaten indar guztiarekin irteten dira



A.L.

"Datozen domeka guztietan irabazteko betebeharra daukagu, duda barik"

zelaira, baina oraindik beterratasun falta dute. Gazteak dira eta orain titular izateko borrokatzen dute guztiak.

Berdinketak eta porrotak. Oraindik ez duzue golik sartu ligan, zergatik?

Ez dakit, eta, beharbada, horrek kezkatzen nau une honetan. Zenbait partidutan aukerak egin ditugu, baina zorte txarra

izan dugu nonbait; langara, atezainaren eskuetara...Ez dugu golik sartu. Edozelan ere, uste dut gero-ago eta itxura hobea ematen ari garela.

Aurkariak, bestalde, gogor ibili dira, bost gol jaso dituzue.

Bai, baina bost horietatik lau lehenengo partiduan izan ziren. Partidu hura oso arraroa izan zen, bi minutuan bi gol sartu zizkiguten, gero segidan beste bi... Une hartan gehiago sartuko zizkigutela ere uste izan nuen. Oso txarto jokatu genuen. Errua? Talde osoarena, nirea barne, jakina.

Orduan, autokritika egiteko unea iritsi da?

Jakina, logikoa da. Ez genuen uste horrelako liga hasiera izango genuenik. Oso erlaxatuta hasi ginen eta hori, beharbada, aurrendenboraldirik egin ez genuelako izan daiteke. Bergarak ere ez zuen aurrendenboraldirik egin eta antzeko egoeran dago.

Edozelan ere, aurrera begiratzuz, garaipenak etorriko dira?

Bai, orain arte ez dugu ezer egin, baina datozen domeka guztietan partiduak irabazteko betebeharra daukagu, duda barik.

Datorren domekan kanpoan jokatu duzue, Aloña Mendiren aurka; zer gertatuko da derbi horretan?

Azken urteotako estatistikei kasu egiten badiet, jakin badakit UDak Aloña Mendiren aurka ez duela sekula irabazten. Baina urte bakoitza desberdina da; beraz, nire kinielan "2" zenbakia jarriko dut.

PILOTA

Zapatu honetan beharrean, urriaren 12an hasiko da kirol etxeko Pilota Txapelketa

Maritxu Kajoi festak hainbat pilotariri utziko dien ajearen beldur, Eskuz Binakako Txapelketa astebete atzeratzea pentsatu du kirol etxeko kirol arduradunak. Horrela, txapelketako lehenengo partiduak urriaren 12an jokatuko dira.

Aurten, hamar bikotek eman dute izena txapelketan. Denek ere goiko mailan jokatu dute, gainera; hau da, erdi mailako pilotekin. Lehenengo partiduak edozein ligatan moduan jokatuko dira. Azkenak, berriz, kanporaketak izango dira. Horrela, txapelketako finala abenduaren 14rako dago iragarrita. Kirol teknikariak txapelketa polita izango dela uste du.

PIRAGUA

Errobi errekan piraguan ibiltzeko irteera antolatu du Murruxiko Mendi Elkarteak

Oraingoan Baigorri aldera egingo dute piragua irteera Murruxikoko lagunek. Urriaren 13an, 07:30ean irtengo dira Beroako autobus geltokitik Errobi ibaira. Han, piraguak errentan hartu eta gidari bat ere hartuko dute. Horrela, goiz osoa piraguekin errekari pasatuko dute. Arratsaldean, berriz, Baigorriko zenbait leku bisitatuko dituzte.

Interesatuak datorren urriaren 8a baino lehenago eman beharko dute izena Murruxikoko egoitzan edo Azkena tabernan. Ez da beharrezkoa izango federatu txartela edukitzea. Egin beharrek bakar 10 euro ordaintzea da. Taldea mugatua izango da.

HITZORDUAK

FUTBOLA

Aloña Mendi-UDA

Preferentea.

Domekan. 12:00. Oñati.

UDA-Urki

Bigarren mailako erregionala.

Domeka. 16:00. Ibarra.

Antzuola-UDA/Almen B

Bigarren mailako gazteak

Domeka. Antzuola.

UDA/Almen C-Bergara

Bigarren mailako gazteak.

Domeka. 10:00. Ibarra.

EMAITZAK

FUTBOLA

UDA 0 Hondarribia 0

Preferentea.

Euskalduna 1 Almen 1

Gazteen Euskal Liga.

UDA/Almen B 2 Aurrera 0

Bigarren mailako erregionala.

Gazteak 2 UDA/Almen 6

Bigarren mailako gazteak.

Intxurre 1 UDA/Almen 5

Lehenengo mailako kadeteak.

UDA/Almen 1 Arrasate 2

Bigarren mailako kadeteak.

UDA 4 Mutriku 0

Bigarren mailako kadeteak.

PILOTA

*Aretxabaletako pilotariak gaur arratsaldeko zortzietan jokatu dute denboraldirik lehenengo partiduak. Hortaz, datorren astean emango dizkizuegu partidu horietako emaitza guztiak.

Dorleta taberna

Bezereen zerbitzura

Loramendi, 8
Aretxabaleta
Tel. 943 79 94 15

Martín

erlojudenda


Bere bezereen
zerbitzura

Mitarte, 16
Tel.: 943 79 01 72
ARETXABALETA



Matikua jatetxea

Azatza auzoa
ARETXABALETA
943 79 16 68



Hirusta Jatetxea

Ilargi plaza 4
943 79 06 57
ARETXABALETA

IBARRA estankoa



PRENTSA ETA
IKASMATERIALA
Egunero zabalik

Bizkaia, 3 Tel.: 943 79 23 77
ARETXABALETA

Okindegia - Gozologia

Aretxabaleta

Loramendi, 6 • 943 77 17 19
Basabe, 2 • 943 77 00 81
Aretxabaleta
Bertako okina

Iber

Loteria
Paperdenda
Liburuak

Otalora 2.
ARETXABALETA
Tel.: 943 79 04 39

LEIBAR arrandegia

Mitarte Kalea, 1
Tel.: 943 77 13 79
Aretxabaleta



MUNDUTARRAKARETXABALETAN

PILI MUÑAGORRI

AEROBIKEKO IRAKASLEA / HERNANI

“Aretxabaletak lana eta familia eman dizkit, nik, berriz, aerobika eman diot”

AINZANE GARDOKI

Pili Muñagorri 21 urterekin utzi zuen jaioterria, Hernani. Ameriketako Estatu Batuetan urtebete izan zen ingelesa ikasten, Filadelfian. Eta ingelesaz gain, aerobikarekin eta jazzarekin ere egin zuen topo: “Negua oso gogorra da han. Oso modan zegoen aerobika Ameriketako Estatu Batuetan. Telebista aurrean jarri eta orduak ematen nituen aerobika egiten”, esan digu Pilik.


Euskal Herrira itzuli zenean, egun senarra dena ezagutu zuen, aretxabaletarra. Kultur Bideetan elkarteak Arrasaten lan egiteko aukera eman zion. “Nik Turismo ikasketak egin nituen. Lan polita egiten nuen Arrasaten, baina zortzi orduz bulegoan izanda, noiz egin hain gustuko nuen kirola? Eta lanaren ondoren, kirola egin ez gero, noiz egon lagu-

nekin? Ez nuen horrela jarraitu gura. Kirola nire lanbide bihurtu gura nuen garai hartan”, esan digu Pilik. Baita egin ere. Aretxabaletara etorri zenean, duela zazpi urte,

“Filadelfian, telebista aurrean jarri eta orduak ematen nituen aerobika egiten”

aerobika ekarri zuen besapean. Pili izan da herrian aerobika eman duen lehenengo irakaslea: “Aretxabaletak niri lana eta familia eman dizkit, eta nik Aretxabaletari, berriz, kalitatezko aerobika eman diodalakoan nago”. Hamabostean behin Hernanira joaten da bisitan. “Hernanik, Donostia ondoan egonda, aukera handiagoak ematen ditu edozertarako, baina oso pozik bizi naiz Aretxabaletan”.

HURRETIK



Alvaro Zubillaga

Basotxoko juntako presidentie

Oin dala zazpi urte jubilau zan Alvaro Zubillaga. Ordura arte, Gurea tabernan ezagutu geuen danok. Orduen, barrako jefie ei zan, oin, barrez, basotxoko juntako presidentie da.

Noiztik egitten dittuzu jubilaueen juntako presidente lanak?

Oin dala urtebete hasi nitzen, aurreko juntie aldatu euenien.

Eta lan gogorra da?

Ez, neuk suerte haundixe dauket. Juntako lagun danok ondo errepartidute daukogu baktokhan lana, eta hola lan danek ondo urtetan daue.

Zein lan dauketzue esku artien?

Oin, Basotxon pelukerixie jarteko Udakin negoziaziñotan gabitz.

Pelukerixie, zertarako?

Jentie Basotxora etorteko, aspaldixen oso jente gutxi etorten da-eta.

Biajiek be egiten dittuzue; hurrengue nora?

Bai. Oktubrien Riojara fateko planak egitten gabitz.

Hirugarren adiñekue, jubilaue edo aittitte, zein izen da zure gustokue?

Neu jubilaue naz.

Afiziñorik?

Oin momentuen, perretxikotan fatie.

Zenbat ondo hartu dittuzu?

Uf, asko! Seguru ez dakit, baiñe 40 kilo inguru. Kongeladorie beteta dauket.

San Migeletan egin zeuen dantzarik?

Ez, ez naz oso juergazalie.

Eta sasoi bateko edo oingo jaixek gurago?

Lehenguek.

Irratixe ala telebisiñue?

Irratixe. Telebisiñoko gauza asko entendiduten be kostau egitten jat.

Jubilaziñuek alde onak ala txarrak dittu?

Danak onak, txarrik bat be ez!

AMAGOIA LASAGABASTER

NIREBIDAIAHURA/ Amaia Berezibar

Turkia / 2002ko abuztua

Amaia, beste lagun batekin batera, abuztuaren 5ean iritsi zen Istanbulera. Hara heldu eta hurrengo egunean bertan, Turkiako hainbat leku ezagutzeko asmoarekin, zazpi eguneko zirkuitua hasi zuten bi lagunok. Bigarren astea, berriz, Istanbulen pasatu zuten.


Egeo kostaldeko Pergamo, Izmir eta Efeso hiriak bisitatu zituzten lehenengo. “Anataloian, Kamupale izeneko herrian, urak daukan kare kopuru handiak paisaia berezia eta ikusgarria sortzen du”, esan digu Amaiak. “Capadocian hiru sumenditako laben erosioarekin osatutako ibarrak ere oso politak eta lasaiak dira”. Alfonbra eskola bat ere bisitatu zuten: “Eskuz egiten zituzten alfonbrak. Hain ziren politak... zapaltzeko zirela pentsatzeak bakarrik pena ematen zuen”. Turkiako hiriburu politikoan, Ankaran, egon eta gero, Istanbulera bueltatu ziren. Han, astebetez hara eta hona ibili ziren, gelditu ere egin barik. “Bazarean erosketak egin, kafea, tea eta Turkiako janari goxoaz disfrutatu, eta uneoro saltzaileekin eta taxilariekin diru tratuan ibiltzen ginen. Taxilariekin automobilera sartu aurretik beti lotzen genuen bidaiaren zenbatekoa. Baina behin, tratua egin barik automobilean sartu ginen. Bidaia amaituta, ez geunden gertu gidariak eskatzen zigun astakeria ordaintzeko. Polizia-etxean amaitu genuen. Baina ez genuenez elkar ulertzen, eta ez ziguten ezer egin”, kontatu digu Amaiak. Turkia herri atsegina iruditu zaie bi aretxabaletarrei. Edozelan ere, ohitura guztiz bestelakoak dituztela ere ondo jakin dute. “Nekazari herrietako etxe batzuetan buruz beheara izaten zituzten botilak teilatuetan. Etxean hamabost urtetik gorako neska ezkongagia zegoela adierazten zuten botilok”, esan digu, oraindik ere harrituta, Amaiak.



“Saltzaile eta taxilariekin uneoro ibiltzen ginen diru tratuan”

“Istanbulen polizia-etxera eramán gintuzten behin”

AINZANE GARDOKI



Turkiako leku ikusgarri asko bisitatu zituzten Amaiak eta lagunak.



LASAGABASTER


www.lasagabaster.com

Zebarri?

U R L A T I K L A N D E T A R A

ESKORIATZA ETA LEINTZ GATZAGA / Egubakoitza / 2002ko uztailaren 4a / 95. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Gardoki • Durana 11 20550 ARETXABAETA • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta elektronikoa: zebarri@goiena.com • Lege gordailua: SS200/99



Igeriketak izan du eskaintako kirol ekintzen artean arrakastarik handiena.

Ehundik gora lagunek egingo dute kirola

AINTZANE GARDOKI

Duela zazpi urte inauguratu zuten kiroldegiak 1.250 bazkide ditu. Hasi berri den ikasturterako 150 lagunek eman dute izena eskaini dituzten kiroletan: gimnasia, kenpoa, muskulazioa, patina-jea, urperaketa, sorospen ikastaroa... daude aukeran.

Eskaini dituzten ikastaro guztien artean, dena dela, arrakastarik handiena igeriketak izan du, eta, konkretuki, helduen igeriketak: "Denera, 35 lagunek eman dute izena Igeriketa ikastaroa egiteko, gehienak, %85, emakumezkoak dira", esan digu Unai Salaberriak, kiroldegiko ekintzen arduradunak. "Umeen artean ere hiru talde ditut: talde bik igeri egiten ikasi eta hobetzeko ikastaroa egingo dute, eta 13 umerekin osatutako hirugarren taldeak, berriz, eta hirugarren urtez jarraian, ikasturte osoan egingo dute igeriketa", gaineratu du Salaberriak.

Eskoriatzako kiroldegiak eskaintzen dituen ekintzen artean, badira beste leku batzuetan

askotan ikusten ez diren ekintza bat baino gehiago: urperaketa eta sorospen ikastaroak, kasu. "Urperaketa duela lau urte, ni hemen hasi nintzanean, abiarazi genuen. Hogeita bost lagunek egin dute ikastaroa. Teoria eta uretako lehenengo praktikak igerilekuan egiten dira, eta ikastaroaren bigarren zatia Mutrikun egin izan dugu. Estatu Batuetako SSI Eskolaren Open Water Diver titulua eskuratu dute Urperaketa ikastaroa egin dutenek; munduko edozein puntutan urperaketa egiteko aukera ematen die horrek".

SOROSPEN IKASTAROA

Iaz, Eskoriatzako kiroldegian 14 lagunek atera zuten sorosle titulua. Aurten ere, azaroan, beste Sorospen ikastaro bat egiteko asmoa dute kiroldegiko ardura-

"Kirola egitea ez da ikastaro bat egitea. Kirolak jarraipena izan behar du, bestela, jai dago"

dunek: "Sorosleen premia askotan sumatzen dugu. Harreman ona daukagu Federazioarekin eta prestatutako sorosleak izatea ona da inguruko igerilekuendako".

Helduendako gimnasia, gutxitu fisiko eta psikikoendako gimnasia, kenpoa, aerobika, patina-jea... ere aukeran daude. "Aerobika 70 lagunek egiten dute; baina gimnasio pribatuetan gero eta era gehiagoko modalitateak eskaintzen dituzte, eta guk ezin diogu horri guziorri aurre egin", argitu du Unaiak. "Beste ikastaro batzuk, aldiz, ez dira egiten talderik ez delako sortzen; patina-jea, adibidez. Herri txikia gara, hori ezin da ukatu, eta, hala ere, eskaintza zabala egiten delakoan gaude. Batzuek arrakasta izaten duten bitartean beste batzuk ez dira irteten". Lehen baino kirol gehiago egiten den galdetzerakoan, Unaiak ezetz dio: "Kirola egitea ez da ikastaro bat edo beste egitea; kirolak jarraipena behar du. Igeriketa ikastaroa da leku-ko: umeei ikasten dute igeri egiten, eta ez ditugu gehiago uretan ikusten. Gurasoengandik hasi behar gara kirola indartzen, bestela, jai dago", bukatu du Unaiak.

LABUR

Aldaiepe antolatutako Txakurrarekin Ehiza Xeheko Txapelketa Sozialean, 15 partaide

Aldaiepe ehiza eta arrantza elkarteak zapatuan Arriolan (Araba) egin zuen Txakurrarekin Ehiza Xeheko Txapelketa Sozialean. Ehiztarik hartu zuten parte; guztiak eskoriatzarrak. Ehiztari bakoitzeko hiru faisai askatu zituzten. Denen artean ehiztaririk onena Iñaki Diaz Tejedor izan zen: zortzi faisai hartu zituen. Txapelketa amaitu ondoren bazkaria egin zuten ehiztariek.

Amuskak antolatzen dituen ikastaroetan parte hartzeko aukera du gura duenak

Amuskak txangoa egingo du bihar, zapatua, San Vicente de la Barquerara, Comillasera eta Santanderrera; 40 emakume joango dira. Bestetik, emakumeen taldeak antolatu dituen ikastaroak astelehenean hasi ziren; 60 bat emakume eta gizonezko gutxi batzuk hartu dira ehoziri, pintura, eskulan, zeta eta larrua margotze eta altzariak zaharberritzeko ikastaroak egiten. Norbaitek ikastaroetan parte hartu gura badu, jo dezala Udaleko Kultura Sailera.



1952an jaiotakoen lehenengo irteera

Hiruzpalau lagunek azkeneko orduan huts egin bazuten ere, autobusa hartu eta, guztira, Eskoriatzako eta Gatzagako 38 lagun izan ziren Getaria, Hondarribia eta Pasai Donibanera egindako txangoan. Getariako San Prudentzio auzoan egin zuten hamaiketako. Gero, Hondarribiara joan ziren. Han bueltatxo bat egin eta bapoz bazkaldu ondoren, Pasai Donibanen pasatu zuten arratsaldean. Giro ezin hobean pasatu zuten eguna 1952an jaiotako kinto koadrila horrek. Lehenengo aldiz egin dute irteera baina ez ei da azkenekoa izango, hori argi daukate. /A.G.

TELEFONO JAKINGARRIAK

ESKORIATZA

Udaletxea	943 71 44 07
Udal bulegoak	943 71 45 32
Udaltzaingoa	943 71 44 07
Euskaltegia	943 79 21 68
Kultura etxea	943 71 46 88
Gizarte laguntzailea	943 71 31 36
Kirol etxea	943 71 53 28
Liburutegia	943 71 31 35
Luis Eceiza	943 71 53 56
Jose Arana Almen Ikastola	943 71 44 86
Almen	943 71 49 07
Museo Eskola	943 71 54 53
Axtroki	943 71 40 77
HUHEZI	943 71 41 57
Osakidetza	943 71 44 52
Telesko	943 71 49 17
Taxiak	943 71 40 59

BESTELAKOAK

Eskualde ospitalea (Arrasate)	943 00 53 00
Gurutze Gorria (Bergara)	943 76 55 76
Ertzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Suhiltzaileak (Oñati)	943 79 28 00
Renfe (Zumarraga)	943 72 15 15
Renfe (Gasteiz)	945 23 20 30
PESA (Arrasate)	902 10 12 10
Larrialdiak (Arrasate)	943 77 10 43
SOS Deiak	112

OHARRAK

Joan den astean, Ze barriren 94.alean, Almengo ikasleak Aretxabaletako San Migel azokan saltzen zituzten produktuekin batutako dirua Atxorrotx GKErendako izango zela jarri genuen titularrean. Ez zen zuzena; azoka, Aretxabaletan izanik, batutako dirua Aretxabaletako Hiruatx GKEri ematea zuten helburu. 730 euro jaso zituzten eta diru kopuru hori Hiruatxi emango diote. Barkatu gaizki esanak.



Giro onean pasa dituzte jaiak apotzagarrek

Joan den zapatuan eta domekan giro ederra izan zen Apotzagan. "Lehenagoko orkestra handiak joan ziren. Auzotarrok eta Apotzagara hurreratutakoak gustura ibili gara", esan digu lagun koardila batek.

Meza izan zuten apotzagarrek, bai zapatuan bai domekan ere. Mus Txapelketan Juan Luis Bengoa eta Felipe Izagirre eskoriatzarrak nagusitu ziren. Sustrai Colina eta Amets Arzallusek ere giroa berotu zuten zapatu gauean. 60 bertsozale batu ziren Auzoetxe elkartearen. Bi bertsolari gazteok ez ezik, auzotar bat baino gehiago ere aritu ei zen bertsoan. Umeen Marrazki Lehiaketan Adrian eta Maddi izan ziren guztien artean onenak. /A.G.

LABUR

Guardia Zibilak zapatu gauean herriko familia baten etxea miatu zuen

Guardia Zibilak Gipuzkoan eta Bizkaian egindako polizia operazioaren barruan, joan den zapatuan R.Eren etxea miatu zuen Eskoriatzan. Aingeru Guardia kaleko 4. zenbakira arratsaldeko zortziak inguruan heldu ziren guardia zibilak, eta etxean inor ez zegoenez, atea behera

bota eta barrura sartu ziren. Etxea miatu ondoren, dokumentazioa eta material informatikoa eramane zutela adierazi digu R.E.k. Etxeetako paretak zulatu eta apurtu zizkiotela, berriz, gezurtatu nahi izan du R.E.k. Operazioa goizaldeko hirurak eta laurdenetan amaitu zen.

Erretiratuak Murtziarako maletak eginda eta domekan euren eguna ospatzeko gertu

Domekan, Udalak herriko 65 urte-tik gorakoak omenduko ditu. Parte hartuko duten 200 herritarrek 12:00etan meza izango dute. Meza-oren ondoren, salda beroa hartzeko-aukera eta 14:00etan, herri bazkaria eta dantzaldia, pilotalekuan. Olazar elkarteak, bestalde, Murtziarako bidaia gertu dau-

ka. 50 erretiratutak eman dute izena urriaren 21etik 27ra bitartean La Manga del Mar Menorrera joateko. Handik Murtzia, Cartagena, Mula, Maratalla eta Caravaca de la Cruz bisitatuko dituzte, besteak beste. Joan nahi duenak oraindik badu izena emateko aukera.

LENIZ, C.B. KONPONKETAK




TXAPA, MARGOA eta MEKANIKA

Aingeru Ibiltokia, z/g. • Tfnoa.: 943 71 50 61



Aranburuzabala, 22 behea ESKORIATZA Tfnoa.: 943 71 51 20

BERALAN KRISTALDEGIA



- Ispilu bizelatuak
- Ateentzako beirateak
- Beirate grabatuak eta landuak
- Bainugelako altzari eta manparak
- Neurri zehatzetarako armairuak
- Enmarkazioak
- Lantegietako mantenimentua
- Beiran naiz metakrilatoan neurri eginiko edozelango lanak

Herriko plaza, 8 behea • Aretxabaleta • 943 79 81 78 / 670 997 274



Eta gainera, zerbitzua etxera!

Aranburuzabala 3 ESKORIATZA

Tel.: 943 71 45 46

Ordutegia: 9:00-13:30 eta 17:00-20:00

TOKI ALAI TABERNA

Karajiloetan espezializatua

Tel.: 943 71 47 29 ESKORIATZA

ESTETIKAN ESPEZIALIZATUTAKO ZENTRUA



EDURNE

Aranburuzabala, 42 Tel.: 943 71 51 54 ESKORIATZA

Umeen aisialdia prestatzeko lehenengo batzarra egin du GUREL elkarteak

AINTZANE GARDOKI

Hiru puntu nagusi jarri zituzten GUREL elkarteko batzordekideek mahai gainean: uztailean egindako udalekuen balorazioa, Leixargarateko txabolara egingo duten irteera eta ludoteka zabaldu aurretik kontuan hartu beharreko hainbat punturen azterketa.

Uztailean egindako udalekuetan 19 umek hartu zuten parte. Balorazioa oso ona izan ei da, orokorrean. Puntu horrekin lotuta, Jai-ONE Vitoriak, elkarteko presidentek, GURELen kontuen gainbegiratu ere egin zuen. Urriaren elkartetik Leixargaratera izaten den irteera izan zen batzarraren ukitu zuten bigarren gaia; gura dutenek izena ematea besterik ez dutela adierazi zuten arduradunek, baina herrian gero eta ume gehiago daudenez, txabolan estu baino estuago konpondu beharra izango zela ere argitu nahi izan zuen presidentek.

LUDOTEKAK ATEAK IREKIKO DITU

Urriaren irekiko ditu ateak ludotekak. Begiralearen kontratazioaz,



Lehenengo batzarrean argitu gabeko puntuak aste bi barru lotzekotan gelditu ziren batzordekideak.

urteko kuotaz, eta adin desberdinetako umeak ludotekan elkarrekin edo banatuta egoteko garrantziaz eztabaidatu zuten


batzarrean. Begirale bat kontratatzeke deialdia egitea erabaki zuten. Interesatuok, dei ezazue 943 71 54 25 zenbakira. Orduategia

ere zehaztu zuten: astelehenetik barikura, txikienek 17:00etatik 18:00etara eta nagusiagoek 18:00etatik 19:00etara izango dituz-

Uztailean egindako udalekuen gainean balorazio ona egin du, orokorrean, GUREL elkarteak

Euskal dantzen edo euskal jolasen ikastaroak egitea interesgarritzat jo zuten batzarrean

te ateak zabalik. Noizean behin ume guztiek elkarrekin ekintzak egiteko aukera ere aztertu zuten batutakoek; euskal dantzen edo euskal jolasen ikastaroak egitea adibidez, interesgarritzat jo zuten batzarkideek. Horiek eta lotu bari gelditu ziren beste batzuk erabakitzeke, GURELek batzarra egingo du datorren eguaztenean.



Bide ertzak noiz garbituko dituzte?

Kexu bat agertzeko lekutxo-
ren bat baduen galdezka eto-
rri zitzaigun herritar bat.
Horra: "Eskoriatzatik Gatzaga-
gara doan bidean ez dituzte
aspaldian bide ertzetako bela-
rrak moztu. Bide seinaleak ere
ez dira ikusten", esan digu
G.O.-k. Lagun horrek egune-
ro ibili behar izaten du bide
horretan gora eta behera.
"Arlabango bidean hiruzpa-
lau aldiz garbitu dituzte bide
ertzak. Eskoriatzako beste
auzoetan ere garbi daude erre-
pideak. Gurekin noiz gogo-
ratuko da Diputazioa?"

LABUR

Amaitzear daude kanposantuan egiten ari diren lanak

Iaz, auzolanean herritarre-
kanposantu inguruak garbi-
tu, hormak pikatu eta kale argi-
berriak jarri zituzten. Oraint-
era lanekin amaitzeko, 12.000
euroko aurrekontua onartu
du Udalak; kanposantuko ka-
pila oso-osorik konponduko
dute eta kanposantuko
hormak ere zurituko dituzte.
Duela hiru aste Aguraing-
enpresa batek hasitako lanak
amaitzear daude. Merezi dute
kanposantua izango dute la-
ter, hortaz, gatzagarrek.

FAGOR



ELEKTRATRESNA TXIKIKO NEGOZIOA

Aingerugarda ibilbidea, z/g
Tel.: 943 03 91 00 • 943 71 54 52 (SAT)

GIDA 2003 abian!

Aurten, telefono
partikularrak aurkitu ahal
izango dituzu.

Lagunak, familia, ezagunak...
Guztien telefono zenbakiak!

Telefono berria jarri baduzu
edo aldatu baduzu,
deitu 943 71 23 91 zenbakira.

Gida Komertziala,
zure eskuetan!

Informazio gehiago:

943 71 23 91



ALBOKA gazte moda
ASENSIO jantzi denda
HAURRAK umeen moda
IRIARTE umeen moda
PAGALDAI opariak